

# Prensa oharra

## Nota de prensa



### Udalak akordio bat lortu du aparkalekuekin hiriko mugikortasuna hobetzeko

*Bertakoentzako abantailak, udan tarifak igotzea edo aurretiko erreserba sustatzea dira aparkalekuak modu eraginkorragoan erabiltzeko neurrietako batzuk*

*Lurpeko aparkalekuek mugikortasun aktiboa eta ibilgailu elektrikoen erabilera bultzatuko dute, ingurumenaren gaineko eragina murrizten lagunduz*

Donostiako Udala akordio batera iritsi da Telpark aparkaleku publiko nagusien enpresa emakidadunarekin, hiriaren mugikortasuna hobetzeko helburuarekin, **aparkalekuen erabilera eraginkorragoa sustatuz**.

Hainbat neurriren bidez, hitzarmenak hiriko erdigunean dauden lurpeko aparkalekuetako errotazio plazen **behar eta errealitate berrietara egokiagoa den erabilera** bultzatu nahi du.

Gainera, neurri horiek tresna garrantzitsua izango dira udan bistari ugari datozen momentuetan trafikoa arintzeko, aurreko astean iragarritakoei gehituta.

Oraingoz, akordioa **Cervantes plazako (Kontxa), Boulevardeko eta Okendoko** aparkalekuekin egin da (emakidaren bidez Telpark enpresak kudeatzen dituenak), baina lanean jarraitzen da emakidatutako aparkaleku gehiago gehitu ahal izateko.

Olatz Yarza Mugikortasun eta Garraio Jasangarriko zinegotziak azpimarratu duenez, akordio hau "hilabeteetan egindako lan gogoraren ondoren lortu da, eta inplikaturako eragile guztiek borondate handia izan dute. Beraz, oso eskertuta gaude".

Yarzak gogorarazi duenez, "gure hiria, beste asko bezala, trafiko pribatuari garrantzia emanez eratu zen iraganean, aparkaleku publikoen bidez Erdigunera autoz sartzea erraztuz, epe oso luzerako kontzesioekin gainera. Baina garaiak aldatuz doaz eta aldaketa horren bultzatzaile izan behar dugu, mugikortasun jasangarriagoa lortzen lagunduko diguten alternatibak bilatuz".

Izan ere, hartuko den neurri bakoitza Mugikortasun Plan berriak ezartzen dituen helburuei lotuta dago, hala nola trafikoa eta eragiten duen kutsadura murriztea, energia garbiagoak sustatzea eta guneko publikoak modu eraginkorragoan erabiltzea.

Bestalde, Telparkeko Operazioen lurralde zuzendari Jaime Malo de Molinak azpimarratu nahi izan du "esperientzia aberasgarria izan dela Donostiako Udalaren eskutik lan egitea donostiarrei, tokiko ekonomiari eta ingurumenari mesede egingo dieten mugikortasun-erantzun sortzaileak diseinatzen".

Bere sektoreko operadore nagusietako bat den aldetik, Telparken helburua hiri-mugikortasuneko eredu berri bateranzko trantsizioa erraztea da, herritarrentzako

# Prensa oharra

## Nota de prensa

neurrira egindako aparkatzeko erantzunak abian jarritz. Ildo horretan, Malo de Molinak gaineratu duenez, "presente gauden merkatu guztietan, Telparkek udalen funtsezko kide gisa jardutea bilatzen du, herritarren bizi-kalitatea hobetuko duten, tokiko ekonomia sustatuko duten eta ingurumen-inpaktua murrizten lagunduko duten mugikortasun-erantzun sortzaileak aurkitzeko eta definitzeko".

### Adostutako neurriak

Akordio hori 7 konpromisotan zehazten da. Batzuk berehala aplikatuko dira eta beste batzuk pixkanaka ezarriko dira datozen hilabeteetan:

1. Udako hilabeteetan zirkulazioa arintzea eta bizkortzea, **udan aparkalekuetako tarifak % 23 igotzen**, ibilgailu pribatuak Erdigunean sartzea ekiditeko.
2. **Plazen % 5 mugikortasun alternatiboari bideratzea** (ziklomotorrak / motozikletak, bizikletak eta patinete elektrikoak – kargatzeko aukerekin).
3. Ibilgailu elektrikoaren erabilera sustatzea, **bertakoen plazak kargatzeko azpiegituraz hornituz**, eta, horrela, hiriaren trantsizio energetikoa laguntzea.
4. **Gauetz aparkatzeko** tarifa murriztu bat sortzea aparkalekuetan **TAO bertakoentzat**.
5. **Behar bereziak dituzten kolektiboentzako** (merkataritza, araututako lur gaineko aparkatzeko guneeetako bertakoak...) eguneko **abonu malguak** sortzea, hileko abonua baino prezio egokiagoan.
6. Plazen **aurretiko erreserba** sustatzea, agitazio-trafikoa murriztuz, bereziki ekitaldiak eta okupatze handia dauden egunetan.
7. **Aparkatzeko aplikazio bakarra** izateko lan egitea (lur gainean eta aparkalekuetan), aparkalekuen sarrerak eta irteerak bizkortzeko, zirkulazioa arinduz.

### Cervantes plazako aparkalekua martxan jartzea

Datorren asteartean, uztailak 2, Tokiko Gobernu Batzarrak Cervantes plazako lurpeko aparkalekuaren emakida aldatzea onartuko du adostutako aldaketak ezartzeko, besteak beste, udan tarifak igotzea, aparkaleku zerbitzua beste garraio bide batzuetara zabaltzea, abonua berriak sortzea edo ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak ezartzea.

Aparkaleku horrek 619 plaza ditu bertakoentzat, 654 errotaziokoak eta 52 bizikletentzat, eta errotazio plazen % 5 (33) beste garraio bide moten plazetarako

# Prentsa oharra

## Nota de prensa



erabiliko da: 56 motozikletetarako, 76 bizikletetarako (52 lehendik daudenak + 24 berri) eta 10 patinete elektrikoetarako.

Plaza horiek sarbide mugatua izango dute, aparkalekua itxia izango da eta sartzeko ate bat izango dute sarrerak kontrolatzeko sistema elektroniko batekin. Gainera, hileko abonu espezifikoak izango dituzte, eta aparkaleku eskusiboa eskainiko dute (beste ibilgailu mota batzuekin partekatu gabe). Aurreikuspenen arabera, abonu horien prezioa 12 € ingurukoa izango da hilean bizikleta eta patinete elektrikoentzat, eta 55 € ingurukoa motozikletentzat eta ziklomotorrentzat.

Bestalde, 1-1 (Parte Zaharra) eta 1-2 (Erdialdea) sektoreetan TAO bertakoentzako aparkaleku-baimena duten pertsonen tarifa murriztu bat aukratu ahal izango dute lurpeko aparkaleku horretan (2 € / gaueko ordutegian 19:00etatik 10:00etara). Aukera hau Boulevarden, Okendon eta Easoko aparkalekuetan ere izango dute.

Gainera, uda honetako tarifak (ekainaren 1etik irailaren 30era) % 23 igoko dira 2023koekin alderatuta, data horietan aparkatzeko eskari handiak trafikoan eragiten duen eragina murrizteko, eta disuasio aparkalekuak eta garraio publikoa erabiltzea sustatzeko.

Gainerako neurriak, hala nola kargatzeko gune elektrikoen eskaintza, pixkanaka jarriko dira martxan, eta Okendoko eta Boulevardeko emakiden aldaketak datozen asteetan onartzea aurreikusten da.

Donostia, 2024ko ekainaren 28a